

CRISTOREN DOTRIÑACO

ICASQUIZUNIC

BIARRENAC

piñi ditu eusquerez

JUAN B. EGUSQUIZA

ABADIAC

GURE JAUNA ARTU BAÑO LEN

ICASI DAGUEZAN

EUSQUELDUN UMECHUAC

JABEDUNA DA

ARGUITALDU DA

Verdes Achirica'ren echean

Bilbo'n, Correo caleco 9, g.

1911.

1
56

THE UNIVERSITY OF CHICAGO

PHILIP R. BROWN

1880-1881

THE UNIVERSITY OF CHICAGO

PHILIP R. BROWN

1880-1881

THE UNIVERSITY OF CHICAGO

PHILIP R. BROWN

1880-1881

1881

CRISTOREN DOTRIÑACO

THE UNIVERSITY OF CHICAGO





N-500009760

A-7V

CRISTOREN DOTRIÑACO 44556

ICASQUIZUNIC

BIARRENAC

Ipiñl ditu eusquerez

JUAN B. EGUSQUIZA

ABADIAC

GURE JAUNA ARTU BAÑO LEN

ICASI DAGUIEZAN

EUSQUELDUN UMECHUAC

JABEDUNA DA

ARGUITALDU DA

Verdes Achiricaren echean

Bilbon, Correo caleco 9, g.

1911.

Victoriæ 18 Martii 1911.

Imprimatur.

JOSEPH, Episcopus Victoriensis.

(L. S.)



ITAUNA. *¿Cristiñaba zara?*

ERANTZUPENA. Bai, Jangoicuari esquerrac.

I. *Izen ori ¿norgandic yatortzu?*

E. Cristogandic.

I. *Cristiñau izateco ¿zer eguin biar da?*

E. Cristogan sinistu ta bautismua artu.

I. *Siniste utsagaz ¿izan leitique iñor cristiñau ona?*

E. Ez Jauna: cristiñau ona izateco eguin biar da sinistiac aguintzen dabena.

I. *Jesucristo ¿nor da?*

E. Jangoico biziaren Seme guizondua.

I. *¿Zetaraco guizon eguin zan?*

E. Bere irabaziacaz guizonen zorrac quitutu eguizan.

I. *¿Eta bestetaraco?*

E. Baita guizonai zeruco bidea eracusteco.

I. *¿Nor da gure Jangoicua?*

E. Gauza guztien Eguillea, zerulurraren Jabia, amaibaco ontasuna,

ona beizen jaquituna, altsua, erru-
quiorra ta zuzena, onai betico zoriona
ta gaiztoai betico zoricharra emongo
dautsoen Jauna.

I. *¿Ba-daquizu zer dan Irutasun
edo Trinitaddea?*

E. Irutasun deuna Jangoicua bera
da, jangoicozco izate baten dagoza-
laco iru pertsona, bata bestia eztira-
nac.

I. *¿Zeintzuc dira?*

E. Aitea, Semea ta Espiritu-San-
tua.

I. *¿Zetaraco eguin guenduzan Jan-
goicuac?*

E. Bera ezautu ta maitatu daigun
lurrean eta, au eguin ezquero, zo-
riontsuac izan gaitezcan zeruan.

I. *¿Zein da cristiñabaren esauga-
rria?*

E. Curutze santua.

I. *¿Zelan equiten da?*

E. Onanche: Curutze santuaren †
señaliagaitic, gueure † arerijuac gan-
dic, jagon gaizuz † gueure Jaun eta
Jangoicua.

Aitearen eta Semiaren eta Espiritu
Santuaren izenian. Amen.

I. *¿Zenbat gauza jaquin biar ditu cristiñabac, adin-arguira eltzen darian?*

E. Lau oneizec: zer sinistu, zer escatu, zer eguin eta zer artu biar daben.

LENENGO LAURENA

Sinistu biar dana

I. *¿Zer da sinistea?*

E. Gueuc eztatucsguna, norbaitec dirausculaco, eguitzat euquitea.

I. *¿Zer izango da, ba, cristiñausinistea?*

E. Jangoicucac eracutsi dauscuna, gueuc icusi ezarren, alanche dala uste izatea.

I. *¿Zeintzuc dira cristiñaba lez daucazuan eta sinistuten dozuzan gauzac?*

E. Erromaco Eleiza santucac daucazan eta sinistuten dituzan gustiac.

I. *Eta ¿zeintzuc dira berac eta zeuc sinistuten dozuezanac?*

E. Batez be gure sinisteco egui nagosienac (fedeco articuluac) creduan dagozan lez.

I. *¿Esan eguizu credua?*

- I. Sinistuten dot zeru-lurra egin zituzan Aita Jangoico altsuagan.
- II. Eta bere Seme bazar Jesucristo gure Jaunagan.
- III. Sinistuten dot Jesucristo sortu zala Espiritu Santuaren eguitez, jayo zala Maria Birgiña gandic.
- IV. Igaro ebala necaldia Ponzio Pilatosen aguintzapean, izan zala curutzean josia, illa ta lurperatua.
- V. Jatsi zala infernuetara, irugarren egunian biztu zala illen artetic.
- VI. Igon zala zeruetara, an daguala jarriric Aita Jangoico altsuaren escumati.
- VII. Andic etorrico dala biziai ta illai epaya emotera.
- VIII. Sinistuten dot Espiritu Santuagan.
- IX. Eleiza santu catolicua, santuen alcartasuna.
- X. Pecatuen parcaziñoa.
- XI. Araguiaren biztueria.
- XII. Eta betico bizitzea. Amen.

I. *¿Zer da infernua?*

E. Zorigach guztiaç zorion baric, betico nequiaç atseguin baric dagozan toqui itzal eta bildurgarria.

I. *¿Nortzuc duaz infernuco sutara?*

E. Pecatuan, Jaunaren asarrian ilten diranac.

I. *¿Zer da zerua?*

E. Betico zorionac zorichar baric, atseguin guztiaç neque baric dagozan lecu zoragarria.

I. *¿Nortzuc duaz zerura?*

E. Jaunaren grazian eta bere aiz-
quitasunian ilten diranac.

BIGARREN LAURENA

Escatu biar dana

I. *Otoitza edo oraziñoa ¿zer da?*

E. Jangoicua ganuntz gueure biotza jaso ta Berari biar doguna escatutia.

I. *Otoitzic onena ¿zein da?*

E. **Aita gurea.**

I. *¿Noc esan eban?*

E. Jesucristoc, apostoluac escatuta.

I. *¿Zetaraco?*

E. Guri ondo escatuten iracasteco.

I. *Esan eguidazu.*

E. Aita gurea, zeruetan zagozana, santificadu bedi zure izena, betorquigu zure erreñua, eguin bedi zure borondatea zeruan lez lurrean be. Emoiguzu gaur gueure eguneroco oguia, parcatu eiguzuz gueure zorrac gueuc gueure zordunenac parcatuten dautseguzan lez, eta ez eiguzu ichi tentaziñoan jausten baña gachetic jagon gaizuz. Amen.

Agur Maria, graziaz betia, Jauna da zugaz, bedincatia zara zu andra guztien artian eta bedincatua da zure sabeleco frutua, Jesus.

Santa Maria, Jangoicuaren Ama, erregutu eguizu gu pecatorioc gaitic orain eta gueure eriotzaco orduan Amen.

Gloria Aiteari ta Semiari ta Espiritu Santuari.

Lenengotan lez orain, beti ta amai-baco egunetan. Amen.

I. *Esan eguizu latiñez.*

E. Gloria Patri et Filio et Spiritui Sancto. Sicut erat in principio et nunc et semper et in sæcula sæculorum. Amen.

I *Esan eguizu Salvea.*

E. Agur Erreguiña, erruquizco Ama, gueure bizitza, gozotasun eta icharopena, agur. Deyez gagotzuz Ebaren ume erbestetuoc, antziz eta negarrez gatortzuz negarrezco erri onetan. Ia bada, gueure bitarteco Andria, zeure begui erruquitsu orrec biurtu eguizuz gugana ta erbeste onen ondoren eracusguzu Jesus, zeure sabeleco frutu bedincatua. ¡O biotz biguna! ¡O erruquiorra! ¡O Maria Birgiña gozua! Erregutu eguizu gure alde, Jangoicuaren Ama santea, Jesucristoren aguintzariac lortu daiqueguzan. Amen.



IRUGARREN LAURENA

Eguin biar dana

*Jangoicuaren legueco aguinduc
amar dira: lenengo irurac dagocaz
Jangoicuari ta beste saspirac gueuri
ta gueure lagunari.*

Lenengua, Jangoicua gueyen maitatzea.

Bigarrena, Jangoicuaren izena alperric agotan ez artzea.

Irugarrena, domeca ta jayac Jangoicuaren gauzetan emotea.

Laugarrena, gurasuaquin lotza one-cua izatea.

Boscarrena, ez iñor iltea.

Seigarrena, zantarqueriric ez eguita.

Saspigarrena, ez ezer ostutea.

Zortzigarrena, eguin eztaben gauzaric ez iñori ezartea ta guzurric be ez esatea.

Bederatzigarrena, lagunaren emasteric edo senarric ez gura izatea.

Amargarrena, iñoren ondasunen gurari bidebacoric ez euquitea.

Amar aguindu onec bitan dagoz:
Jangoicua maitatzean beste gauza
guztiac baño gueyago ta gueure la-
guna gueure burua leguez. Amen.

Eleizaren aguintzac bost dira:

Lenengua, domeca ta jayetan Me-
sa osua entzutea.

Bigarrena, urtean bein guichienez
confesetia ta lenago eriotzaco arris-
cuan eta gure Jauna artu gura da-
nian.

Irugarrena, gure Jauna artzea ga-
rizumaco pascoetan, bacochoac bere
eleizan.

Laugarrena, barau eguitea Eleizeac
aguinduten daben egunetan.

Boscarrena, amarrenac, edo onein
ordea, Eleizeari emotea.

ASQUENENGO LAURENA

Artu biar dana

*Eleiza Ama santuaren sacramentuac
saspi dira:*

Lenengua Bautismua.

Bigarrena, Confirmaziñoa.

Irugarrena, Confesiñoa.

Laugarrena, Comuniñoa.

Boscarrena, Oleaziñoa (Unziñoa).

Seigarrena, Eliz-guizontzea.

Saspigarrena, Escontzea.

I. *¿Ze gauza dira sacramentuac?*

E. Jesucristoc ipiñirico esaugarri aguiriac, euren bitartez emoteco guri bere grazia ta birtuteac.

I. *¿Zer da grazia?*

E. Jangoicuaren seme eguin eta zeruracotuten gaituzan izate jangoicozcua.

I. *¿Zetaraco da confesiñoco sacramentua?*

E. Batiatu ezquero eguindaco pecatuac parcatuteco.

I. *¿Zer da pecatua?*

E. Jangoicuaren leguea norbere gurez austea.

I. *¿Zenbat eratan ausi leique?*

E. Lautan: gogoz, itzez, eguitez eta utzez.

I. *¿Noz austen da gogoz, itzez edo eguitez?*

E. Galazoten dabena atseguñez gogoratu, esan edo eguiten danian.

I. *¿Noz, utzez?*

Aguinduten dabena eguiten ezta-
nian.

I. *Pecatua ¿noz izango da astuna edo eriozquiña?*

E. Astuna izango da, ezauera osua-
gaz eta gura dala, Jangoicuaren le-
guea gauza andichuan austen ba-da.

I. *Pecatu astunari ¿zegaitic dericho eriozquiña?*

E. Graziaco bizia quentzen daus-
culaco ta, arimatic jaurti ezic, betico
eriotzea dacarsculaco.

I. *¿Zelan jaurtiten da biotzetic pe-
catua?*

E. Ondo confesauta

I. *¿Zenbat gauza biar dira ondo
confesetaco?*

E. **Bost gauza.**

I. *¿Zeintzuc dira?*

E. **Pecatuac burura ecartea, damua,
erabaguia, autorpena ta quitugarria.**

I. *Pecatuac burura ecarteco, ¿zer
eguin biar da?*

E. Zeruco arguia escatu ezquero,
beguiratu biar da Jangoicuaren eta

Eleizearen aguintza bacochean zetan eta zenbat bidar utz eguin ete dan.

I. *Eta ¿zer besteric?*

E. Gogoratu nondic-nora, nortzucaz eta zetan ibilli garian, gueure erruac errezago burura etorri daquiguzan.

I. *¿Zer da damua?*

E. Eguitorduan maitatu guenduan pecatuarentzaco gorrotua.

I. *¿Zec sortu leique gorroto ori gure biotzetan?*

E. Jangoicuari zor dautsagun maitetasunac eta pecatuac dacarscuzan caltien bildurrac.

I. *¿Zenbat eratacua izan leitique, ba, damua?*

E. Era bitacua: maitetasunezcua ta bildurrezcua.

I. *¿Noc dauco maitetasunezco damua?*

E. Jangoicua gueyen maite dabelaco, pecatuari gorroto dautsonac.

I. *¿Noc, bildurrezcua?*

E. Pecatuari, berez ichusia dalaco edo zeruraco escubidea quendũ ta infernuraco bidean ipiñi dabelaco, gorrotua artzen dautsonac.

I. *¿Noz euqui biar da damua?*

E. Confesoriac gueure pecatuetic ascatuten gaituzaneco.

I. *¿Zer da erabaguia?*

E. Aurrerantzean pecatu astunic beintzat ez eguiteco asmu sendua.

I. *¿Zer da autorpena?*

E. Pecatu astun guztia, gueitu, guichitu ta edertu baric, biotzean dacusguzan lez, confesoriari aguertzea

I. *¿Zer da quitugarria?*

E. Gueure pecatuacaz eguin dautsaguzan zorren ordea Jangoicuari emotea, batez be confesoriac izentetan dauscun eguizuna beteta.

I. *¿Zelan artu biar dogu gure Jauna?*

E. **Arimea garbiric eta gorputza barruric dogula ta nor artzen dogun daquigula.**

I. *Arima garbia ¿zein da?*

E. Jangoicuaren graziagaz apainduta daguana.

I. *Pecatu astunian jausi danac, gure Jauna artu baño len ¿zer eguin biar dau?*

E. Damutu ta confesau.

I. *¿Noztic guero egon biar da barruric?*

E. Eleizacuac artzen diranian izan

ezic, gaberditic aurrera ezerchu be artu baga.

I. *¿Zer artzen dozu comuniñoco sacramentuan?*

E. Jesucristo, Jangoico ta guizon eguiazcua, ogui-irudipean estalduta daguana.

I. *Ondo guertu baric comulguetan danac ¿artzen dau Jesucristo?*

E. Artu bai; baña bere caltian, pecatu izugarri bat eguiten dabelaco.

I. *¿Zetaraco derichazu estalduten dala Jesucristo ogui-irudipean altaraco sacramentuan?*

E. Guri iracasteco, oguia danlez gorputzarentzat janariric egoquiena, Jesucristo bera dala gure arimai graziazco bizian iraunazoteco janariric biarrena.

I. *¿Zelan dago Jesucristo ogui-irudipean?*

E. Oguiaren antza galdu baga, bere izatea Jesucristoren gorputz biurtzen dalaco.

I. *¿Noc eta noz equin eban gauza arrigarri au lenengoz?*

E. Jesucristoc, ilgo zan egunaren aurreco gabian, egüen guren arratze-

co apal ostian, oguia bere gorputz eta ardaua bere odol lenengoz biurtu zituzan eta Aita Jangoicuari esquiñi eutsozan.

I. *¿Emon eutzan Jesucristoc iñori beste onenbeste eguiteco escubideric?*

E. Bai Jauna, gau aretanche emon eutsoen escubide ori bere apostoluai, ta orduanche sortu eban seigarren sacramentua, bere bitartez eliz-guizonac eguiteco, ta eurai be escubide bardiña emoteco munduaren asque-neraño.

I. *Orain ¿noc eta noz biurtzen ditu oguia ta ardaua Jesucristoren gorputz eta odol?*

E. Mesa-emolleac Jesucristoren izenian, Jaunac berac asquen-apari ostian esanico itzac eurac Mesatan esanaz.

I. *Jesucristoren izenian eta bere itzacaz biurcunde ori eguiten ba-da, Jesucristo bera izango da eguiten da-bena ¿ezta?*

E. Bai Jauna: abadia Jesucristoren ordedua baño ezta: eguiatz Jesucristo bera da, abadiaren bitartez, oguia bere gorputz eta ardaua bere odol biurtzen dituzana.

Nic peccatori onec autortzen dautsat Jangoico guztiz altsuari, Maria beti Birgiña zorientsuari, San Miguel aingueruari, San Juan Bautisteari, San Pedro ta San Paulo apostoluai, beste santu guztiai ta zuri, ene arimaco Aita, *zoricharrez* gueyeguitan peccatu eguin dodala gogoz, itzez eta eguitez, neure erruz, neure erruz, neure erru andiz. Augaitic escatzen dautsat Maria beti Birgiña zorientsuari, San Miguel aingueruari, San Juan Bautisteari, San Pedro ta San Paulo apostoluai, beste santu guztiai ta zuri, ene arimaco Aita, arren nire alde erregutu daguiozula gure Jaun eta Jangoicuari. Amen.

Jesucristo, neure Jauna, Jangoico ta guizon eguiazcua, neure Eguille ta Salbaguillea, zariana zarialaco ta zeu gueyen maite zaitudalaco, damu dot, Jauna, biotz gustitic zu ofendidua.

Artzen dot gogo sendo bat ez gueyago peccaturic eguiteco, eguin dodazanac osoro confesetaco, betetaco emongo yatan penitentzia ta izteco peccaturaco bidea.

Opa dautsudaz, Jauna, neure bizona, neque ta eguite guztiac neure

pecatuen orderaco ta icharoten dot
zeure ontasun eta erruqui amaibagan
parcatuco daustazuzala ta emongo
daustazula zeure laguntzea neure bi-
zitzea onduteco ta zeure otseintzan
irauteco neure eriotzaraño. Amen.


¡Erruqui, ene Jauna,
Erruquia nigaz!
¡Jaun on eta samurra,
Erruqui zaquidaz!

¡Ene biotz gaizua!
Negar eguiquezu:
Jesus maitatsuari
¿Zer eguin dautsazu?

Izan nayatzu, Jauna,
Esquer gaiztocua
Zauritu eguin dautzut
Bular laztantsua.

Orain, damuz urturie,
Negarrez natortzu:
¡Ene Aita laztana!
parcatu eidazu.

Uarpena. Chiqui oni abegui ona eguiten
ba-yaco, nagosia be guerochuago arguita-
duco da.





AT
445